

# Fukushiman zientzia eta etika kontrajarri nahian



**Arnie Gundersen ingeniari nuklearraren esanetan, orain arte Fukushiman bildutako datuekin goiz da baieztapen zientifiko sendorik egiteko, "baina nahikoa da inguruan bizi diren pertsonen artean lanean aritzea zenbat anormaltasun dauden ikusteko".**

SAIL HONETAN maiz samar azaleratu ditugu Fukushimako zentral nuklearran gertatu direnak eta gertatzen ari direnak. Datu zehatzak eman ditugu, baina gehienetan leku eta une zehaztuta emandako datu banakak izan dira. Informazioa TEPCO zentralaren enpresa kudeatzaileek kontrolatzen dute, Japoniako Gobernuarekin batera. Informazio ofiziala murrizta da, eta oro har erabiltzen den argudioa da egungo datuekin ezin dela ezer zientifikoki ondorioztatu Fukushimaz.

Baieztapen zientifiko batek denbora behar du; datu ugari behar dira, eta haien joerak garbia behar du izan. Beraz, TEPCOk arrazoi du hemengo eta hango datu banaka batzuek oinarri zientifiko nahikorik ez dutela dioenean, baina ahaztu egiten zaio –nahita– sen zientifikoak iradokitzen duen ondorio batera iristeko datuak bilatu behar direla, ez ezkutatu.

Ildo horretan adierazgarria egin zaigu oso, Arnie Gundersen ingeniari nuklearrak adierazitakoa. Gundersenek dioenez, egia da egun arte argitara emandako datuekin baieztapen zientifiko sendorik egitea ez dela zilegi, "baina nahikoa da Fukushimaren inguruan bizi diren pertsonen artean lanean aritzea zenbat anormaltasun dauden ikusteko".

Gundersenen ustetan agian goiz da jakiteko zenbat jende hil den Fukushiman minbiziaren eraginaz, baina bai minbizi bai beste gaixotasun batzuk izugarri areagotu direla bistakoa da, depresioa handitu dela bistakoa da, ekosistematan arazoak daudela bistakoa da... Etikak diosku arazo larri baten aurrean gaudela, baina etika iristen den lekura zientzia ez da oraindik iritsi, besteak beste inor ez delako datuen bilketa sistematikoa egiten ari. Eta bitartean, Fukushimako agintariek zientzia aldarrikatuko dute etikaren gainetik. ■



**Babeslea: iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

**iametza**

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

## Espazioko hotsak entzungai

NASAk *Soundcloud* webgunea ireki berri du. Bertan espazioko hainbat soinu entzun daitezke: gure atmosferara heltzen diren irrati-uhinak, *Voyager* ontziaren inguruan dagoen espazio plasmak egiten duen zarata, Saturnoren inguruan biraka dabilen *Cassini* zundak igortzen digun seinalea...

ttiki.com/87759

(Ingelesez)

## Flores uharteko gizakiaren misterioa argitzeke oraindik

Indonesiako Flores irlako leize batean giza espezie batenak izan daitezkeen hezurak aurkitu zituzten orain dela hamar urte. Orduetik hona igarotako denboran ezer gutxi ikasi dugu *Homo Floresiensis* delakoaz.

ttiki.com/87760

(Euskaraz)

## Transistore malgu batek iraultza eragin dezake elektronikari

Kaliforniako Unibertsitateko (UCLA) Xiangfeng Duan-ek zuzendutako lantaldeak, nanomaterialak erabiliz, urrats garrantzitsua egin du gailu elektronikoen malguak sortzeko bidean. Zehazki, UCLAko ikerlariek molibdeno sulfurozko transistorea sortu dute, etorkizunean aplikazio ugari erabil litekeena: osasun-egoera neurtzeko sistemak, betaurreko inteligentek...

ttiki.com/87761

(Gaztelaniaz)